Torreren aproximazio bidean.

PATAGONIA, amodio konfidentziala

Patagoniako puntaren puntan

Fitz Roy, Poincenot, Cerro Torre

XABIER ANSA

Cerro Torre izotz zintzilikatuetan.



EUSKADITIK urriaren 28an irten eta azaroaren lehen egunean izan genuen mendi zoragarri harrek ikusteko aukera. Ilusio handi batek bultzatzen gintuen barrutik eta hurrengo goizean irten ginen artza txaboletatik, baso igaro eta glaziar aldera. Eta barruko indar hori izan zen lehen ahalegin hauek ondo egiten lagundu ziguna; azaroaren bosterako Fitz Roy eta Poincenot eginak genituen, azkeneko hau bi egun lehenago gainditu baigenuen.

Animoak irakiten jarri zitzaizkigun, irteera honen basera makala izan ez zela eta.

Egunak aurrera zihoazten eta atsedenean murgilduta bizitu ginen, beste mendiren bat egiteko txispa piztu eta indartzen hasi arte. Bai gustora era. Eta tartean, beste ahalegin gogor bat egin ondoren, azaroaren 23a izen zen, Cerro Torreko azken metroetan ezpatekin haizearen aurka borrokatu eta gero, gailur magiko eta izoztu honetan lehenengo aldiz geure gorputza eta irrifarrea jartzeko izan genuen eguna. Ez zen berriketarako asti handirik izan, baina ongi bukatzerik izan genuen, haize zorrotzak traba latzak jarri baizkigun ere.

Aurreko hauetan eguraldi oneko oso motzak izan baziren ere, ilaren 23tik aurrera egun bat bakarra ez zela behar bezalakoa irten esan behar, ia ilabete osoan.

Egia esan, behar gehiegirik ere ez genuen, gustora bai geunden baso idiliko hartan bizitzen. Hori bai, motxila beti zegoen prest ate ondora arrimaturik.

Eta hala, abenduaren 18an eguraldi ona ageri zela eta, hasi ginen geure bizitza alpinistikoan egin dugun gauza gogor eta konpenetratuena egiten. Bi egunetako etengabeko lana izan zen, eta azkenean, Stanhart gaillurerako hirurogei metro falta zitzaizkigula hortzak erakutsi zizkigun mendiak.

Honetatik erabat eatsirik jaitsi eta ia astebete osoa pasa genuen bertatik ekarritako nekea, gosea, egarria eta lasaitasun amorroa ezin aseturik.

Eguberriak iristear zeuden eta Akonkagua saiatzeko asmoa genuenez, leku paregabe hura utzi behar, baina herretarako, sentimenduak unkitu gabe ezin utzi.

Akonkaguara bidai luze bat egin ondoren, bertara heldu ginen. Urtarrilaren 6an gailurrean geunden. Pozik eta sensazio berri baten menpean. Han Ameriketako mendirik altuenean aitak kozkor baten gainean eserita, begirada urrutira joan zitzaidan, ez dakit nora, urrutira, behar bada Patagokia aldera.

Cerro Torreren granitozko azken zatietan.

Cerro Torren eskalatzen. Odeien nahasten hasiak dira.



Foto: Josep Manuel Anglada - 1979 (Archivo SGIM).

Macizo del Fitz Roy y Cerro Torre, desde el S.E.

Filosofía planteiamenduaren barnean

BATI baino gehiagori, kontu zehatzagoak zertxobait interesatuko zaizkionaren ustetan, horra zenbait datu.

Hamabost egun batetik bestera motxila bana hartu eta irten ginen. Beraz arintasuneren ideiarekin suspertutako bidaia izan zela begibistan dago.

Bidaiak ez du arazorik. Buenos Aires-Río Gallegos hegazkinez egin genuen (busez baino merkeagoa). Río Gallegosen janari guztia erosi. Río Gallegos-Calafate busez, eta azkeneko leku hau oso garestia da. Calafate-Chalten (200 Km.), kontratuturiko auto batez edota busez zenbait urtegaraietan, gautxoaren txabolaraino.

Helburu zehatzik ez generaman. Bagenekien hango zenbait mendik alpinista askoren ametsei kea atera zietela eta geu ere horretarako prest geunden. Informaziorik ere ia ez genuen, mendiak zailak zirela eta haizeak gogor jotzen zuela ezezik.

Beraz planteiamendua egiteko orduan, gehiegirik eramateko aukerarik ez genuenez, behar beharrezkoa besterik ez genuen hartu, era berean kalitate oso oneko materialea aukeratuaz. Eskaladari dagokionean, lau igoeratan materiale berbera erabili genuen: gutxi, ona, eta denetatik zertxobait. Eskalada lau kasu hauetan era guztietakoa eta zailtasun desberdinetakoa da: bai izotzean, harkaitzean eta mixtoan.

Patagonian eguraldiaren aldaketak azkarrak direla eta, eskaladaren planteiamenduan dago gakoa. Eta horretan zorte handia izan genuen, biok berdin pentsatzen baigenuen estrategia moldatzerakoan. Gauzak ondo eta azkar egiten lan izaten da, baina gure ustetan hori zen aukera bakarra.

Azkar eta ondo ibili ahal izateko, arintasuna eta zama gutxi eramatea behar rezkoak dira. Horrelako eskalada bat egiteko gauza asko eraman behar direla ere egia da. Eta tarte handi eta zalantzatsu horretan asmatzea ez da batere erraza. Hori asmatzen jakin, indartsu egon eta eskalada zailetan azkar mugitzea dira gure ustetan Patagoniako planteiamenduaren zikilusaltsa arin eta azkarraren osagarriak. Hau praktikara itzuliaz, zera esan behar: Basotik «pelotetan» irtetzen ginela, materialea, lumajaka, bibak funda, urarentzat kantinplora handi bana eta kontu handiz aukeratutako janari piska batekin. Zakurik eta berogailurik gabe. Horretaz kanpo, eguraldi epe on bat iristerako, eskaladaren haseran egotea komeni izaten da, baina hau konplikatuagoa da; bestela ez genituen glaziarrean eman ditugun buelta guztiak emango.

Eguraldia oso aldakorra da eta gehienetan txarra egiten du; baina kontuz, horrek ez du esan nahi mendiak igo ezin direnik, horretara moldatu behar dela baizik.

Behean, basoan, askotan euria egiten du, baina batzuetan nahiz eta haizea oso haserre ibili goialdean, nahiko gustora egoten da. Beno egia esan, basoan gustora beti egoten da, alboko idatzian garbi ikus daitekeen bezala.

Hara joateko asmotan bahabil, ez gehiegi obsesionatu gailur konkreturen batekin, Patagonia oso filosofia lasai batekin tratatu beharreko zerbait baita.

Patagonian oso gustora bizitzen da. Izugarri paraje polita da paseiatzeko, basoak aluzinanteak dira lasaitasunean bizitzeko, gautxoak majoak oso, ligatzeko aukera bakanen bat ere izaten da tarteka, eta gainera, haizeak lotartzen duenean irreal tsaunean eraikitako dorre izoztu batzu eskalatu daitezke. Ez da gutxi. Horra planteiamenduan sartzeko filosofiarik onena.

Fitxa teknikoak

Euskaditik irteera: 1987ko urriaren 28an.

Azaroaren 3a. Aguja POINCENOT. 3.036 m. Ingelesen bideari aldaketa txiki bat irekiaz.

Azaroaren 5a. CHALTEN (Fitz Roy). 3.441 m. Terrayren bidea zuzendu zuten argentinarren bidetik.

Azaroaren 23a. CERRO TORRE. 3.128 m. Maestriren bidetik.

Abenduaren 18/19a. Cerro STANHART. Gaurdaino igo gabeko gailurra. 60 metro falta zitzaizkigula jaitsi beharrean aurkitu ginen, material berezi baten faltaz.

Ondoren, 1988 urtearen haseran AKONKAGUA egin genuen, batek normaletik eta besteak polakarren glaziarretik.

Partaideak:
Txema Egizabal eta Xabier Ansa.



Dibujo: XAVI.

Amodio konfidentziala

Fitz Roy eta ingurua.

BASO zaharraren erdian. Eguzkiaren goizeko lehen errainuekin piatzen duten txorien azpian. Oso noizbehinka azaltzen diren azarien gordelekuetatik gertu. Mendietako elurrak bidalitako erreken musikaren doinuarekin. Hantxe dago txabola, baso zaharraren erdian, garbiune batetan udaberriak loratutako loredietatik ez oso urrun.

Lau zuhaitzen gorpu lodiak zutabe direlatik, egurrez eraikitako txabola barruan nago. Txikitan ezagututakoen tankerakoa, orain ipuinak errealak zaizkit gerta. Egurpilaren alboan *eserita, urez beteriko lapikoa berotzen* ari den suari begira, gizakiak elkarturik bizi diren lekuan, muga guzien arrazoin bila arnas gabe dabiltzan zenbait tipok ohiukaturiko pakea eta zorionari irrifarre gaiztoa boteaz. Izkiriatzen hasi naiz eta nondik eta nola hasi ez dakitela gertatu dira ia mugiezinean hatz lodi eta traketsak. Haizearen igurtziek eta ez garbitzearen lakartasunak ornitutako hatzak. Laztasun eta kraka guztian preziaturiko balio paregabea dakusat. Zigarro bat ezpainetatik zintzilik, ezpal ia errearen brasa kixkalia bera piztutzera eta aldika eskua begietara, suaren keak ezetutako begi malkotuak legortzera.

Azkeneko egunetan ohinetakorik jantzi ez duten ohin zikinei begira, burumuinetan iragaiten ari den amets-erreka indartuak hartu eta zilipurdika eraman nau ametsean erabat *murgilduta, lotartu gabe galduta, eurite on*dorengo ur arrekiko errekak eskuratutako ostro ahalgea bainintza.

Paraje miresgarri honek enkantu berezi bat badu eta perretxikuen erraztasun berberarekin dizkio sortarazten bati ametsak, aldatutako hazia jorratuko balio bezala. Horregatik zait hainbeste laket haizea inon baino kementsuagoa den paraje hau, bizitzarako ilusio eta ametsak loratzeko ahalmena aberasten zaidalako alegia.

Aspaldian, edota inoiz, orrazirik ikusi ez duten ile luze nahasien azpitik dira gau izartsuaren iluntasunera azaltzen aurpegi irrifarredunak. Haizeak eta eguzki idorrak zigortutako larruak harrotuta dakusat, zorionaren ezedura azalerazten duten begi bustidun aurpegi zartatu hauetan. Mundu guziko txokoetatik hurbildutako aurpegiak, aurreko egunetako eskalada gogorretan nekeak eragindako lasaitasunean murgildutako gorpuak. Guztiak suaren inguruan elkarri komunikazio traketsean zerresanka, zihorrean zulatutako arkume sahietsa erretzetik bukatu zain. Aldika farre algarak dira entzunen, dagoenerako ardo beltza ahalegin gogorretan mehetutako odol gardena loditzen hasia *baita*.

Gauerdia da. Denbora pasea da azken arkume ezurra gosetuenak mihizkatzen etsi duenetik. Ardo gehiena ere eztarri zuloetan behera ezkutatua da. Nekea bera ere nabarmen agertzen hasia da ahozabalka luzeetan. Jendea badoa lumazakuetara lerre eginda, ardo ugari edateak eragindako balantzak ezin zuzendu dituzte, eta badoaz astiro bizkarretik elduta, aldika estropozoka. Une batez denak joanak dira, ni bezalako gorpuak joanak dira, aldiz ez nago bakarrik txabolaren atarian. Gauerdiko izarrekin nago. Loak hartuaurreko pixerreka boteaz ortzea dut begiratu; bertan dizdira argidun anitz ikustean, ordu batzu lehenago igarotako uneak datozkit gogora. Patagonian bai baita kanpandorrean zintzilik izotzezko ezkilak dituen dorre bat, etsipenaren mugan. Gogoko ditut, *laket zaizkit gailurrean, izarren alboan en*tzundako kanpaien hotsak.

Han goian, basoak behean gelditzen diren lekuan, haizea jaun eta jabe bihurtzen da. Zuhurtasunak ez du lekurik, haserreak baliorik ez duen era berean. Zaunka etengabedunen zientzia eta progresua, gezak gerta ohi zaizkie nire nahien sapaiari, atzerapen zaizkit gerta; ilargiak bainau gauetan argitzen, eguzkiak baidizkit ametsak berotzen. Han goian, kanpaien soinuek zakur agintarien zaunkak estaltzen dituzte, entzuten ez direlarik. Zertarako entzun ba, gosea asetzeko zerbait badut, egarria bustigai bada.

Patagonia maite zaitut; amodioa didazu onhartzen, zure iztertartean galtzeko saiatzen naizen une honetan...

Xabier Ansa, Patagonian, basatitasunaren basatitasunez, 1987aren hilzorian.

RESUMEN

Durante el pasado verano austral, dos jóvenes montañeros vascos, Xabier Ansa y Txema Egizabal realizaban en Patagonia la ascensión a tres de las cumbres míticas de este macizo: Fitz Roy, Cerro Torre y Aguja Poincenot, así como un intento a la Aguja Stanhart, que debieron abandonar a pocos metros de la cumbre.

Fue una incursión casi desenfadada, sin apenas preparativos previos, con un gran número de interrogantes que se fueron despejando al mismo pie de los glaciares patagónicos.

El Fitz Roy fue acometido por la ruta argentina de 1984. Dos días de escalada, con un descenso envueltos en la tormenta, fueron suficientes para superar uno de los centinelas de piedra de Patagonia.

Pocos días antes habían superado, a modo de toma de contacto con el granito de estas montañas la Aguja Poincenot.

Quedaba, sin embargo, pendiente el gran desafío de Patagonia: el Cerro Torre. Los dos jóvenes se encaramaron por la vía Maestri hacia la cumbre más afilada de Patagonia. Había que darse prisa. En la rapidez está el secreto del éxito en estas montañas. A pesar de ello, la tempestad les rodeó en su llegada a la cumbre, tras veinte horas de escalada.